

**BERASTEGIKO UDALA***Iragarkia*

Udalbatza osoak hurrengo erabaki hartu zituen, aho batez, 2014ko urtarrilaren 3an eginiko ezhoiko bilkuran:

1. Behin betiko onartzea Eraikuntza, urbanizazio, iraunkortasun, landa-ingurunearen babesa eta lizentziei buruzko udal Ordenantzen lehenengo aldaketa.-.
2. Agintzea Eraikuntza, urbanizazio, iraunkortasun, landa-ingurunearen babesa eta lizentziei buruzko udal Ordenantzen testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko.-.

**BERASTEGIKO UDALEKO ERAIKUNTZA,  
URBANIZAZIO, IRAUNKORTASUN, LANDA-  
INGURUNEAREN BABESA ETA LIZENTZIEN GAINEKO  
UDAL-ORDENANTZAK**

1 dokumentua

MEMORIA

**I. ORDENANTZEN HELBURUA**

Berastegiko Udalaren ekimenez landu dira Ordenantza hauek, udalerrian indarrean den Hiri Antolamenduko Plan Orokorra betez, eraikitze eta urbanizatzeko obrek zein jardunek bete behar dituzten baldintzak zehazteko xedearekin; halaber, aipatu ordenantzen xede diren eta bertan arautzen diren gainerako baldintzak, jarduerak ezartzei eta baimenei buruzkoak barne, zehaztuko dira, eta babes-neurriak eta ingurumen-iraunkortasunerako neurriak egokituko dira.

**II. ORDENANTZAK EGITEKO LEGE-ESPARRUA**

Ordenantza hauen xede diren eta bertan arautzen diren arlo guztietan indarrean diren legezko xedapenen multzoak osatzen duen lege-esparruan egin dira Ordenantzak.

Xedapen horien guztien artean, ondoren adierazten diren biek arreta berezia merezi dute une honetan.

Alde batetik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea, 2006ko ekainaren 30ekoa, zein premiazko neurriei buruzko 2008ko ekainaren 3ko Dekretua, aipatu legearen bidez garatua. Zehazki, lege horren 60. eta 75. artikuluetan hirigintza-antolamenduaren osagarri diren udal-ordenantzak arautzen dira, beste zenbait alderdiren artean urbanizazioarekin zein eraikuntzarekin zerikusia duten gaitan eragina dutenak.

Bestetik, Berastegiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.

Nolanahi ere, Ordenantza hauek eraginpean hartzen dituzten arloetan indarrean diren gainerako xedapen guztiak gehitu behar zaizkie aurrekoei. Ondorengo hauek dira horietako batzuk, ordena kronologikoan azalduta, eta ez da zerrenda osatua, gogoratzeko edota adierazteko beste xederik ez dute:

— Irisgarritasuna sustatzen duen Legea, 1997ko abenduaren 4koa, eta hori garatzeko ateratako xedapenak, bereziki 2000ko apirilaren 11ko Dekretua, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen, barne dela.

**AYUNTAMIENTO DE BERASTEGI***Anuncio*

El Pleno de la Corporación Municipal en sesión extraordinaria celebrada el 3 de enero de 2014, adoptó por unanimidad el siguiente acuerdo:

1. Aprobar definitivamente la primera modificación de las Ordenanzas municipales de edificación, urbanización, sostenibilidad, protección del medio rural y licencias.-.
2. Ordenar la publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa del texto íntegro de las Ordenanzas municipales de edificación, urbanización, sostenibilidad, protección del medio rural y licencias.-.

**ORDENANZAS MUNICIPALES DE EDIFICACION,  
URBANIZACION, SOSTENIBILIDAD, PROTECCION  
DEL MEDIO RURAL Y LICENCIAS DEL  
AYUNTAMIENTO DE BERASTEGI**

Documento 1

MEMORIA

**I. OBJETO DE LAS ORDENANZAS**

Estas Ordenanzas se elaboran a iniciativa del Ayuntamiento de Berastegi, con el fin de determinar, en desarrollo del Plan General de Ordenación Urbana vigente en el municipio, las condiciones a las que se han de adecuar las obras y actuaciones de edificación y urbanización, así como las restantes objeto de atención y regulación en las mismas, incluidas las de implantación de actividades y las licencias, procurando medidas de protección y sostenibilidad ambiental.

**II. MARCO LEGAL DE ELABORACIÓN DE LA  
ORDENANZAS**

Estas Ordenanzas se elaboran en el marco legal conformado por el conjunto de disposiciones legales vigentes en las distintas materias objeto de atención y regulación en las mismas.

De todas esas disposiciones, merecen una particular atención en este momento, las dos que se indican a continuación.

Por un lado, la Ley de Suelo y Urbanismo, de 30 de junio de 2006, así como el Decreto de medidas urgentes, de 3 de junio de 2008, promovido en desarrollo de dicha Ley. En concreto, en los artículos 60 y 75 de aquella Ley se regulan las Ordenanzas municipales complementarias de la ordenación urbanística, con incidencia, entre otros extremos, en cuestiones relacionadas tanto con la urbanización como con la edificación.

Por otro, el Plan General de Ordenación Urbana de Berastegi.

En todo caso, a las anteriores han de añadirse todas las restantes disposiciones vigentes en las materias afectadas por estas Ordenanzas. Algunas de ellas, expuestas en orden cronológico y con fines meramente recordatorios y/o enunciativos, y no como una relación completa, son las siguientes:

— La Ley para la promoción de la accesibilidad, de 4 de diciembre de 1997, y el conjunto de disposiciones promulgadas en su desarrollo, incluido el Decreto de 11 de abril de 2000, regulador de las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

— Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Legea, 1998ko otsailaren 27koa, eta hori garatzeko ateratako xedapenak.

— Eraikuntza Antolatze Legea, 1999ko azaroaren 5ekoa.

— 2006ko martxoaren 17ko Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzako Kode Teknikoa, eta hori garatzeko ateratako xedapenak.

— Berariazko arloen gaineko indarreko xedapenak, besteak beste, honako hauek dira: Ur-hornidura; saneamendua; hondakinak; isolamendu akustikoa; isolamendu termikoa; suteak; segurtasuna eta osasuna; energia; telekomunikazioak, eta abar.

Xedapen horien artean, zehazki, Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren uraren ziklo integraleko zerbitzua arautzen duen Ordenantza dago, 2007ko abenduaren 3ko akordioaren bidez behin betiko onetsitakoa.

### III. ORDENANTZEN EDUKI FORMALA

Proiektu honen aurreikuspenak honako bi agiri hauetan jasoko dira:

- \* «1. Memoria» dokumentua.
- \* «2. Ordenantzak» dokumentua.

Lehenengoaren xedea planteatutako proposamenak (bigarren agirikoak barne) azaltzea eta justifikatzea besterik ez da. Ez du berezko balio arauemailerik.

«2. Ordenantzak» agiriak, berriz, izaera arauemailea du eta proiektu honen izaera horretako proposamenak jasotzen ditu. Agiri horretan jasotako proposamenen maila arauemailea ordenantzei dagokiena da, goragoko mailako legezko xedapenetan jatorria dutenei dagokienaren kalterik gabe.

### IV. ORDENANTZEN HELBURUAK, IRIZPIDEAK ETA PROPOSAMEN OROKORRAK

#### 1. Sarrera.

Oro har, aurreko II. epigrafean aipatutako lege-esparruaren barruan eman dira Ordenantza hauek eta, ordenantzen xede diren arlo desberdinetan esku hartzeko irizpideak eta jarraibideak zehaztea dute helburu, Berastegiko hiri-plangintza garatuz. Arlo horien artean, honako hauek zehaztera bideratutakoek arreta berezia behar dute:

- Udalerriko espazio publikoak urbanizatzeko baldintzak.
- Espazio pribatuak eraikitze eta tratatzeko baldintzak.
- Ingurumena babesteari lotutako baldintzak.
- Lurzoru urbanizaezinean berariaz aplikatu beharreko baldintzak.
- Hiri-plangintzen eta urbanizazio-obren proiektuen edukien eta lanketaren baldintzak.
- Udal-lizentziak eskatzeko, izapidetzeko eta gauzatzea kontrolatzeko baldintzak.

Era berean, aipatu arloetan adierazitako esku-hartze garrantzitsuenen gaineko irizpide eta proposamen orokorrak epigrafe honen hurrengo ataletan azalduko dira.

— La Ley General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, de 27 de febrero de 1998, y las disposiciones promovidas en su desarrollo.

— Ley de Ordenación de la Edificación, de 5 de noviembre de 1999.

— El Código Técnico de Edificación, aprobado mediante Real Decreto de 17 de marzo de 2006, y el conjunto de disposiciones promovidas en su desarrollo.

— Disposiciones vigentes en materias específicas como las siguientes: Abastecimiento de agua; saneamiento; residuos; aislamiento acústico; aislamiento térmico; incendios; seguridad y salud; energía; telecomunicaciones; etc.

Una de esas disposiciones es, concretamente, la Ordenanza reguladora del servicio del ciclo integral de aguas del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, aprobada definitivamente mediante acuerdo de 3 de diciembre de 2007.

### III. CONTENIDO FORMAL DE LA ORDENANZAS

Las previsiones de este proyecto se incluyen en los dos documentos siguientes:

- \* Documento «1. Memoria».
- \* Documento «2. Ordenanzas».

El primero de ellos tiene un carácter básicamente expositivo y justificativo de las propuestas planteadas, incluidas las del segundo documento. Carece de valor normativo propiamente dicho.

Por su parte, el documento «2. Ordenanzas» tiene carácter normativo y contiene las propuestas de esa naturaleza de este proyecto. El rango normativo de las propuestas incluidas en ese documento es el propio de unas ordenanzas, sin perjuicio del correspondiente a aquellas que tienen su origen en disposiciones legales de rango superior.

### IV. OBJETIVOS, CRITERIOS Y PROPUESTAS GENERALES DE LA ORDENANZAS

#### 1. Introducción.

Promovidas, con carácter general, en el marco legal al que se ha hecho referencia en el anterior epígrafe II, estas Ordenanzas tienen el objetivo de, en desarrollo del planeamiento urbanístico de Berastegi, determinar las pautas y criterios de intervención en las distintas materias objeto de las mismas. Entre esas materias, merecen una particular atención las relacionadas con la determinación de:

- Las condiciones de urbanización de los espacios públicos del municipio.
- Las condiciones de edificación y tratamiento de los espacios privados.
- Las condiciones en materia de protección ambiental.
- Las condiciones de aplicación específica en el suelo no urbanizable.
- Las condiciones del contenido y de la elaboración de los planes urbanísticos y de los proyectos de obras de urbanización.
- Las condiciones de solicitud, tramitación y control de la ejecución de las licencias municipales.

A su vez, los criterios y las propuestas generales de intervención de mayor relevancia planteados en las citadas materias son los expuestos en los siguientes apartados de este mismo epígrafe.

## 2. Urbanizazio-arloko irizpide eta proposamen orokorrak.

Hauek bezalako Ordenantza batzuek berezkoa duten esku hartzeko esparruan, funtsean udalerriko espazio publikoak tratatzeko eta urbanizatzeko jarraibideak zehaztea da helburua, halako espaziotzat hartuz bai lehendik finkatuta daudenak eta bai etorkizunean hirigintza-plangintzan planteatutako proposamen berriak garatzeko eta gauzatzeko prozesuen ondorioz sortzen direnak.

Horretarako, aipatutako urbanizazioa konfiguratu edota baldintzatzen duten elementuen multzoan jartzen da arreta, eta, horrekin bat etorritik, honako elementu hauek tratatzeko eta ezartzeko irizpideak zehazten dira, besteak beste:

- Ur-hornidurako sarea eta zerbitzua.
- Saneamendu-sarea eta zerbitzua.
- Telekomunikazio-sarea.
- Energia elektriko eta herriko argiz hornitzeko sarea eta zerbitzua.
- Gas-sarea eta -zerbitzua.
- Espazio publikoen azaleraren tratamendua eta hiri-altzariak.
- Oinezkoen sarea eta bide-sarea.

Arlo horiek guztiak arautzeko planteatutako proposamenak, zehazki, proiektu honen «2. Ordenantzak» agirian azaldukoak dira.

Horrela, udalerraren hirigintza-antolamendua osatzen duten heinean, hirigintza-plangintzan ezarritako aurreikuspenen zerbitzura daude, eta antolamendu-aurreikuspen horiek behar bezala gauzatzeko laguntzea dute helburu. Xede horrekin, zenbaitetan neurri material konkretu eta zehatzak biltzen dituzte, kasu bakoitzean esparru egokian gauzatzeko. Beste zenbaitetan, dagozkien proiektuen esku uzten dute (urbanizazio-obren proiektuak funtsean) kasu bakoitzean esku hartzeko irizpide egokiak zehatz-mehatz finkatzeko eginkizuna.

Beste alde batetik, urbanizatzeko irizpide fisikoak zein materialak zehaztearekin batera, proposamen horiek, halaber, ingurumen-izaerako beste zenbait proposamenetan dute eragina, ordenantzek esku hartzeko duten esparrua aintzat hartuta, ingurumena babestean eragina izate aldera. Hain zuzen ere, horrexegatik, aipatu neurri horiek zeharkako izaera ere badute eta garapen iraunkorra bilatzen saiatzen dira.

## 3. Eraikuntza-arloko irizpide eta proposamen orokorrak.

Mota honetako ordenantzei dagokien esku hartzeko esparruaren barruan, egin asmo diren eraikinak eraikitzeke jarraibideak zehaztea dute xede eta, era berean, eraikin horien bizitegi-kitasunari, segurtasunari, eraikuntzaren kalitateari, eta abarri lotutako arloak aintzat hartzen dituzte. Horren harira, eraikinen berezko izaera edota baldintzak erabileraren arabera bereizten dituzte, hala nola, bizitegi-erabilera edo bestelako erabilera (jarduera ekonomikoak, ekipamenduak, etab.) baldin badute.

Horretarako, jarraian azaltzen diren arlo desberdinak hartzen dira kontuan; honako hauek dira, besteak beste:

A. Lehentasunez bizitegi-erabileretara zuzendutako eraikuntzak eta espazioak.

Eraikuntza eta espazio horien kasuan, Ordenantza hauek, besteak beste, honako arloetan jartzen dute arreta:

## 2. Criterios y propuestas generales en materia de urbanización.

Su objetivo es el de, en el marco de intervención propio de unas Ordenanzas como éstas, determinar las pautas de tratamiento y urbanización de los espacios públicos del municipio, considerando como tales los actualmente existentes como los que resulten en el futuro de los procesos de desarrollo y ejecución de las nuevas propuestas planteadas en el planeamiento urbanístico.

Con ese fin, la atención se centra en el conjunto de elementos que configuran y/o condicionan la citada urbanización, y se determinan los criterios de tratamiento e implantación de, entre otros:

- La red y el servicio de abastecimiento de agua.
- La red y el servicio de saneamiento.
- La red de telecomunicaciones.
- La red y del servicio de suministro de energía eléctrica y de alumbrado público.
- La red y el servicio de gas.
- El tratamiento de la superficie de los espacios públicos y el mobiliario urbano.
- La red peatonal y viaria.

Las propuestas planteadas a los efectos de la regulación de todas esas materias son las expuestas en el documento «2. Ordenanzas» de este proyecto.

Así, en la medida en que complementan la ordenación urbanística del municipio, están al servicio de las previsiones establecidas en el planeamiento urbanístico, y su finalidad es la de contribuir a la correcta ejecución de dichas previsiones de ordenación. Con ese fin, en ocasiones, contienen medidas materiales concretas y precisas a los efectos de su materialización en el marco adecuado en cada caso. En otras, remiten a los correspondientes proyectos (básicamente proyectos de obras de urbanización) la concreta determinación de los criterios de intervención oportunos en cada caso.

En otro orden, además de en la determinación de los criterios de urbanización de carácter físico o material, sus propuestas inciden asimismo en otras de carácter ambiental a los efectos de, desde el campo de intervención propio de las Ordenanzas, incidir en la protección del medio ambiente. Precisamente por ello, las medidas de esta última naturaleza tienen en las mismas un carácter transversal buscando procurar un desarrollo sostenible.

## 3. Criterios y propuestas generales en materia de edificación.

Su objetivo es el de, en el marco de intervención propio de unas Ordenanzas como éstas, determinar las pautas de construcción de las edificaciones proyectadas, prestando atención a cuestiones relacionadas con la habitabilidad, la seguridad, la calidad constructiva, etc. de las mismas, diferenciando a ese respecto la naturaleza y/o condicionantes propios de las mismas en atención a su destino, bien a usos residenciales, bien a otros usos (actividades económicas, equipamientos, etc.).

Con ese fin, la atención se centra en, entre otras, las distintas materias que se exponen a continuación:

A. Edificaciones y espacios destinados y/o vinculados a usos preferentemente residenciales.

Tratándose de esas edificaciones y espacios, la atención de estas Ordenanzas se centra en la regulación de, entre otras, materias como las siguientes:

— Bizitegirako lokalen eta espazioen bizi-gokitasuneko baldintza orokorrak, espazioen dimentsioa arautzen dutenak barne, zein horien oinarrizko instalazioak hornitzeko baldintzak.

— Bizitegirako lokal eta eraikuntza horien eta horiei lotutako bestelako elementuen segurtasun-baldintzak.

— Eraikuntza horien instalazioen eraikuntza-kalitateko eta funtzionaltasuneko baldintzak.

— Bizitegi-erabilerako eraikuntzak tratatzeko baldintzak, honako hauei dagokienez: Eraikuntzen kanpoko tratamendua (fatxadak, estalkiak, mehelinak); esekilekuen tratamendua; errotuluak, markesinak eta argi-iragarkiak ezartzeko baldintza orokorrak; finken bereizketa eta itxierak; sestra gainean eraikita ez dauden erabilera pribatuko espazioen kontserbazioa eta apaindura; eta abar.

— Jabariari buruzko baldintza orokorrak, zortasunak ezartzeari eta gauzatzeari lotutakoak barne.

— Desjabetze bidez esku hartzeko baldintzak, indarrean den hirigintza-plangintzan aurretik eta finkatuta dauden eraikin eta etxebizitzetarako sarbidea bermatzearen.

B. Lehentasunez bizitegi-erabileretarako ez diren eraikuntzak eta espazioak.

Eraikuntza eta espazio horiei dagokienez, Ordenantza hauek, besteak beste, funtzionaltasuna, higiena, segurtasuna eta eraikuntza-kalitatearen, zein tratamendu estetikoaren baldintza orokorrak arautzean jartzen dute arreta.

Arlo horiei eta arlo horien inguruan planteatutako aurreikuspenei dagokienez, kontuan izan behar da ordenantza hauek, behin eta berriz aipatu bezala, Berastegiko hirigintza-plangintzak ezarritako antolamendu-aurreikuspenak osatzea helburu nagusizat duten tresnak baino ez direla.

Era berean, bizitegi-erabilerako eraikinen kasuan, kontuan izan behar da Ordenantza hauen bidez une honetan arloko oinarrizko lege-erreferentzia osatzen dela, hots, Eraikuntzako Kode Teknikoak, 2006ko martxoaren 17ko Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, eta berau garatzeko emandako xedapenek osatzen dutena.

#### 4. *Ingurumena babesteko irizpide eta proposamen orokorrak.*

Udalak lortu asmo dituen iraunkortasun helburuak ere jasotzen dituzte ordenantza hauek, era horretara, aipatutako lege-esparrua gaindituz.

Gisa horretako irizpideak direnez, eta gainerakoei garrantzirik kentzeko inolako asmorik gabe, honako arlo hauetan planteatutako esku hartzeko neurriek arreta berezia merezi dute:

\* Neurri babesleak edo prebentziozkoak.

Zehazki, arlo hauetan dute eragina: Geologia eta geomorfologia; ura; lurzorua; biodibertsitatea (landaredia/fauna).

\* Neurri zuzentzaileak.

Zehazki, arlo hauetan dute eragina: Atmosfera; geologia eta geomorfologia; ura; lurzorua; biodibertsitatea (landaredia/fauna); paisaia; ingurune sozioekonomikoa; hiri-antolamendua, hirigintza eta eraikuntza.

— Las condiciones generales de habitabilidad de los locales y espacios residenciales, incluidas las reguladoras de la dimensión de los espacios, y de la dotación de sus instalaciones básicas.

— Las condiciones de seguridad de las citadas edificaciones y locales residenciales, y de los diversos elementos vinculados a las mismas.

— Las condiciones de calidad constructiva y de funcionalidad de las instalaciones de esas edificaciones.

— Las condiciones de tratamiento de las edificaciones residenciales en lo referente a extremos como estos: El tratamiento exterior de las mismas (fachadas, cubiertas, muros medianeros); el tratamiento de los tendedores; las condiciones generales de implantación de rótulos, marquesinas y anuncios luminosos; las separaciones y cierres de fincas; la conservación y el ornato de los espacios de uso privado no edificados sobre rasante; etc.

— Las condiciones generales de dominio, incluidas las relacionadas con el establecimiento y el ejercicio de servidumbres.

— Las condiciones de intervención mediante expropiación con el fin de garantizar el acceso a las edificaciones y viviendas preexistentes y consolidadas en el planeamiento urbanístico vigente.

B. Edificaciones y espacios destinados y/o vinculados a usos preferentemente no residenciales.

Tratándose de esas edificaciones y espacios, la atención de estas Ordenanzas se centra en la regulación de, entre otras, las condiciones generales de funcionalidad, higiene, seguridad y calidad constructiva, así como de tratamiento estético de las mismas.

En lo referente a todas esas materias y a las previsiones planteadas en torno a las mismas, ha de tenerse en cuenta que estas Ordenanzas no son sino un instrumento cuya finalidad básica es la de, tal como se ha comentado en reiteradas ocasiones, complementar las previsiones de ordenación establecidas en el planeamiento urbanístico de Berastegi.

Además, en lo concerniente a las edificaciones residenciales ha de tenerse en cuenta que estas Ordenanzas vienen asimismo a complementar el referente legal básico en este momento en la materia, conformado por el Código Técnico de Edificación, aprobado mediante Real Decreto de 17 de marzo de 2006, y el conjunto de disposiciones promovidas en su desarrollo.

#### 4. *Criterios y propuestas generales en materia de protección ambiental.*

Las ordenanzas incorporan los objetivos de sostenibilidad que se propone el Ayuntamiento, trascendiendo así del marco legal al que se ha hecho referencia.

Tratándose de ese tipo de criterios, sin con ello quitar importancia a las restantes propuestas, merecen una particular atención las medidas de intervención planteadas en las diversas materias siguientes:

\* Medidas de carácter protector o preventivo.

Inciden, en concreto, en las siguientes materias: Geología y geomorfología; agua; suelo; biodiversidad (vegetación/fauna).

\* Medidas correctoras.

Inciden, en concreto, en las siguientes materias: Atmósfera; geología y geomorfología; agua; suelo; biodiversidad (vegetación/fauna); paisaje; el medio socio-económico; la ordenación urbana, la urbanización y la edificación.

## \* Neurri konpentsatzaileak.

Zehazki, arlo hauetan dute eragina: Ura; biodibertsitatea (landaredia/fauna).

Aurreko neurriak osatzeko berariazko beste neurri batzuk planteatzen dira arlo hauetan: Hondakin-uren saneamendua, ibai-ibilguen babesa, abeltzaintza-jardueren ezarpena, faunaren babesa, eta abar.

Neurri horien guztien helburua udalerriko ingurumenaren kalitatea hobetzea, zaintzea edota indartzea da. Xede horrekin, hirigintzako eta eraikuntzako proposamenak antolatzeak eta gauzatzeko irizpideak eta izaera horretako proiektuak egitekoak zehazten dituzte.

5. *Lurzoru urbanizaezinean garatutako jardunen gaineko irizpide eta proposamen orokorrak.*

Berastegiko Plan Orokorrak xedatutako araudi orokorraren zehaztapenei jarraituz, lurzoru urbanizaezinean garatu beharreko jardunak egokitzea aurreikusten da.

Zehazki, eraikitzeak eta erabiltzeko baldintza orokorrak aztertzen eta zehazten dira, nekazaritza-ustiategiei lotutako etxebizitzetara zuzendutako eraikinei dagozkienak, zein nekazaritza- edo abeltzaintza-ustiategietara zuzendutako gainerrako eraikinei dagozkienak.

Era berean, pista-irekitzeak eta landa-bideak mugatzen dira, plantazio eta eraikinen artean gorde beharreko tartearak eta distantziak, betelanagerako eta zabortegietarako baldintzak eta lurren egokitzapena ere.

Bestetik, nekazaritza-erabilera profesionalizatu gabeko aztertu eta arautzen dira, zehazki, neurri txikiko txabola eta berotegien erabilera, eta horien tamainak eta kokapenak zehazten dira.

Azkenik, bestelako erabilera eta eraikuntza ez-landatarrak, baina lurzoru urbanizaezinean baimendu daitezkeenak, arautzen dira.

6. *Hirigintza-planak eta urbanizazio-obren proiektuak egiteko baldintza formalak eta edukia zehazteko arloko irizpide eta proposamen orokorrak.*

Plan eta proiektu horiek arloan indarrean diren legezko xedapenetan ezarritako irizpideetara egokitzea aurreikusten da.

Nabarmenezkoa den garrantzi handieneko berrikuntzetako bat nahitaez paperean zein euskarri digitalean egin eta Udalari hala entregatu beharrekin lotuta dago.

Dena den, ez da, inondik ere, xedapen haietan ezarritakoaren aurka doan berrikuntza, han aurreikusitakoarekin guztiz bat datorrena baizik.

7. *Udal-lizentziak eskatzeko, izapidetzeko eta gauzatzeko kontrolatzeko arloko irizpide eta proposamen orokorrak.*

Berezkoa duten eginkizuna betez, arlo horretan indarrean diren legezko xedapenetan ezarritako dauden esku hartzeko irizpideak garatzea eta osatzea da Ordenantza hauek lizentzien arloan duten helburua.

Horretarako, proposamenei alderdi hauetan dute eragina, besteak beste:

— Udal-lizentzia behar duten jardunak identifikatzen dira, eta adierazitako xedapenetan horri buruz ezarritako aurreikuspenak garatzen dira.

## \* Medidas compensatorias.

Inciden, en concreto, en las siguientes materias: Agua; biodiversidad (vegetación/fauna).

Las medidas anteriores se complementan con otras específicas planteadas en materia de saneamiento de aguas residuales, protección de cauces fluviales, implantación de actividades ganaderas, protección de la fauna, etc.

El objetivo de todas esas medidas es el de mejorar, preservar y/o potenciar la calidad ambiental del municipio, determinando, con ese fin, los criterios de ordenación y ejecución de las propuestas urbanísticas y edificatorias, así como de elaboración de los correspondientes proyectos de esa naturaleza.

5. *Criterios y propuestas generales en materia de actuaciones desarrolladas en suelo no urbanizable.*

En desarrollo de las determinaciones de la normativa general establecida en el Plan General de Berastegi, se prevé la adecuación de las actuaciones a desarrollar en suelo no urbanizable.

En concreto se analizan y puntualizan las condiciones generales de edificación y uso, tanto las de los edificios destinados a viviendas ligadas a explotaciones agrarias, como las de otros edificios destinados a explotaciones agrarias o pecuarias.

Igualmente se delimitan las aperturas de pistas y caminos rurales, las separaciones y distancias a respetar entre plantaciones y edificaciones, las condiciones para los rellenos vertederos y acondicionamiento de terrenos.

Por otra parte se analizan y regulan los usos agrarios no profesionalizados, en concreto el uso de chabolas e invernaderos de pequeñas dimensiones, determinándose sus tamaños y ubicaciones.

Finalmente se regulan otros usos y edificaciones no rurales, pero susceptibles de autorización en suelo no urbanizable.

6. *Criterios y propuestas generales en materia de determinación del contenido y las condiciones formales de elaboración de los planes urbanísticos y de los proyectos de obras de urbanización.*

Se prevé la adecuación de dichos planes y proyectos a los criterios establecidos a ese respecto en las disposiciones legales vigentes en la materia.

La novedad de mayor relevancia a destacar está relacionada con la preceptividad de su elaboración y presentación ante el Ayuntamiento tanto en soporte papel como en soporte digital.

En todo caso, no se trata de, en modo alguno, una novedad contraria a lo establecido en aquellas disposiciones, sino totalmente coincidente con lo previsto en ellas.

7. *Criterios y propuestas generales en materia de solicitud, tramitación y control de la ejecución de las licencias municipales.*

Cumpliendo el cometido propio de las mismas, el objetivo de estas Ordenanzas en materia de licencias es el de desarrollar y complementar los criterios de intervención establecidos en las disposiciones legales vigentes en esa materia.

Con ese fin, sus propuestas inciden en, entre otros, extremos como los siguientes:

— Se identifican las actuaciones sujetas a licencia municipal, desarrollándose las previsiones establecidas a ese respecto en las indicadas disposiciones.

Halaber, jarduerak direnez, bi modalitate desberdinetan bereizten dira: Jarduera sailkatuak eta jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazio gisa izapidetutakoak.

— Lizentzia-eskaeren eduki formala zehazten da, baita, testuinguru horretan, horretarako aurkeztu beharreko proiektuena ere.

— Horretarako, horren inguruan esku hartzeko irizpide argi eta zehatzak zehazteko xedearekin, alderdi horiek arautzen dituzten baldintza orokorrak, nola lizentzia-eskaeren modalitate bakoitzaren berariazkoak eta berezkoak zehazten dira, horietariko bakoitzaren berezko berezitasunak kontuan izanda.

— Testuinguru horretan, lizentzia-eskaera horiekin batera aurkeztu behar diren zehaztapenak zein agiri orokorrak eta berariazkoak definitzen dira.

— Halaber, dagozkion proiektuak (modalitatea dena dela ere: Eraikuntza; bestelako obrak; jarduerak; etab.) nahitaz paperean zein formatu digitalean aurkeztu beharra aurreikusten da.

— Indarrean diren legezko xedapenetan ezarritako aurreikuspenak garatuz, adierazitako lizentzia-eskaerak, eta, horien artean, obra txikien zein jardueren modalitate guztiei dagozkie-nak izapidetzeko irizpideak zehazten dira.

— Gainera, bestelako arloetan esku hartzeko irizpideak definitzen dira, hala nola: Lizentzien titulartasuna eta horiek eskualdatzea; lizentzien eraginkortasunerako berariazko baldintza orokorrak eta bermeak; zergak, tasak eta eskubideak ordaintzea; zuinketa; obra-zuzendaritzako aldaketak; lizentzien edukia aldatzea; lizentzien luzapena eta iraungipena; obrak bertan behera uztea; obrei amaiera ematea eta eraikinak eta instalazioak erabiltzen hastea, eta jarduerari hasiera ematea; obrak eta erabilerak ikuskatzea, etab.

## V. ORDENANTZAK APLIKATZEA

Jendaurrean jarri ondoren, Berastegiko Udalak behin betiko onetsiko ditu udal-ordenantza hauek.

Ordenantza hauek eta horien aurreikuspenak Berastegiko udalerrri osoan aplikatzekoak izango dira, indarrean jartzen diren unetik.

### 2. dokumentua

### ORDENANTZAK

### LEHEN TITULUA

### ORDENANTZAK APLIKATZEKO XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua. Ordenantzen helburua.

Ordenantza hauen helburu nagusia hiri-plangintzak jasotzen dituen urbanizatzeko eta eraikitzeo obra eta jardueren proiektuak egin eta gauzatzeko baldintzak zehaztea da, hirigintza-legeriak nola Berastegiko Udalean indarrean den hirigintza-plangintzak jasotako aurreikuspenak garatuz; era berean, baldintza horiek aintzat hartu behar dituzten ingurumen-izae-rako eskaerak zehaztea, eta dagozkion proiektuak lantzea.

A su vez, tratándose de actividades, se diferencian las dos modalidades siguientes: Las actividades clasificadas y las tramitadas como comunicación previa de actividad clasificada.

— Se determina el contenido formal de las correspondientes solicitudes de licencia, y, en ese contexto, de los proyectos a presentar con ese fin.

— Para ello, con el fin de determinar los más claros y precisos criterios de intervención a ese respecto, se definen tanto las condiciones generales reguladoras de dichas cuestiones, como las específicas y propias de diversas modalidades de solicitudes de licencia, en atención a las particularidades propias de cada una de ellas.

— En ese contexto, se definen tanto las determinaciones como los documentos generales y específicos que han de incorporar esas solicitudes de licencia.

— Asimismo, se prevé la preceptividad de la presentación de los correspondientes proyectos (cualquiera que sea su modalidad: Edificación; otro tipo de obras; actividades; etc.) tanto en soporte papel como en formato digital.

— Se determinan, en desarrollo de las previsiones establecidas en las disposiciones legales vigentes, los criterios de tramitación de las indicadas solicitudes de licencia, y, en concreto, de las diversas modalidades tanto de obras menores como de actividades.

— Se definen los criterios de intervención en otras materias como las siguientes: Titularidad de las licencias y transmisión de la mismas; condiciones generales específicas y garantías para la efectividad de las licencias; abono de impuestos, tasas y derechos; replanteo; cambios en la dirección de obra; modificación del contenido de las licencias; prórroga y caducidad de las licencias; abandono de las obras; finalización de las obras y puesta en uso de los edificios e instalaciones, e inicio de la actividad; inspección de las obras y de los usos; etc.

## V. APLICACIÓN DE LAS ORDENANZAS

Tras su exposición pública, las presentes ordenanzas municipales serán aprobadas definitivamente por el Ayuntamiento de Berastegi.

Estas Ordenanzas y sus previsiones serán de aplicación, desde su entrada en vigor, en la totalidad del término municipal de Berastegi.

### Documento 2

### ORDENANZAS

### TITULO PRIMERO

### DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL REFERENTES A LA APLICACIÓN DE LAS ORDENANZAS

#### Artículo 1. Objetivo de las Ordenanzas.

La determinación, en desarrollo de las previsiones establecidas tanto en la legislación urbanística como en el planeamiento urbanístico vigente en Berastegi, de las condiciones de proyección y ejecución de las obras y actuaciones de urbanización y edificación proyectadas en dicho planeamiento, así como de los requisitos de carácter ambiental a los que se han de sujetar las mismas, y de elaboración de los correspondientes proyectos, constituye el objetivo principal de estas Ordenanzas.

Halaber, Ordenantza hauen aurreikuspenen mende dauden gainerako arloak arautzeko xedea dute ere.

## 2. artikulua. Ordenantzen aplikazio-esparrua.

Ordenantza hauek eta horien aurreikuspenak Berastegiko udalerrri osoan aplikatzekoak izango dira, indarrean jartzen diren unetik.

## 3. artikulua. Ordenantzen indarraldi- eta aplikazio-baldintzak.

Bere egitekoa kontuan hartuta eta hurrengo idatz-zatian aipatutako salbuespenen kalterik gabe, indarreko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra garatuz sustatzen den plangintzak Ordenantza hauetan ezarritakora egokitu beharko ditu bere edukia eta proposamenak, eta ezingo ditu aldatu.

Aurreko idatz-zatiko salbuespena Ordenantza hauen aurreikuspenak aipatu garapen-plangintzaren eragin-eremuari dagozkion ezaugarri eta baldintzetara egokitzea eta moldatzea adieraz lezaketen kasuei lotzen zaie. Dena den, egokitzeko beharra zein egokitzapenaren edukia eta irismena aldeztatik eta halabeharrez justifikatu beharko dira; era berean, udal-zerbitzu teknikoek, aldeztatik eta halabeharrez ere, egokitzapena egiteko egokitasuna baloratu beharko dute.

## 4. artikulua. Ordenantzen agiriak. Agiri horien eta horien zehaztapenen maila eta lotura arauemailea.

Ordenantza hauek agiri hauek dituzte barne:

- «1. Memoria» dokumentua.
- «2. Ordenantzak» dokumentua.

Adiera hertsian, «2. Ordenantzak» agiri horretan barne hartutako zehaztapenak arau-mailakoak dira.

Bestetik, «1. Memoria» dokumentua eta horren aurreikuspenak «2. Ordenantzak» dokumentuan jasotako proposamenen berri emateko dira, eta aldi berean, horiek justifikatzeko eta interpretatzeko.

Ordenantza hauek eta, zehazki, «2. Ordenantzak» agiriaren aurreikuspenek arau-maila dute ezarrita indarreko hirigintzarloko legerian.

## 5. artikulua. Ordenantzak aldatzea.

Ordenantza hauen aldaketak indarreko legerian ezarritako irizpideetara egokituko dira.

Testuinguru horretan, aldaketek interes orokorreko arrazoietan oinarritu beharko dute, eta haien edukia eta irismena zehatz-mehatz deskribatu beharko da, eta aldaketak berriaz justifikatu beharko dira.

Aldaketa guztiak horiek justifikatzen dituen arrazoiarekin izango dute zerikusia, eta espedientean ezingo dira sartu arrazoi horrekin lotuta ez dauden edo egindako deskribapenetan eta justifikazioetan espresuki aipatzen ez diren aldaketak.

Aurreko 3. idatz-zatian azaldutakoarekin bat etorritik, proposatutako aldaketa guztiak aztertu eta justifikatu ahal izango dira, besteak beste, horiek udalerrri osoan dituzten eraginaren ikuspegi orokorretik, eta ezingo da lurralde-eremu horren testuinguruan justifikatzen ez den aldaketa puntualik egin.

Además, ese objetivo ha de entenderse complementado con la regulación de las restantes materias afectadas por las previsiones de estas mismas Ordenanzas.

## Artículo 2. *Ámbito de aplicación de las Ordenanzas.*

Estas Ordenanzas y sus previsiones serán de aplicación, desde su entrada en vigor, en la totalidad del término municipal de Berastegi.

## Artículo 3. *Condiciones de vigencia y de aplicación de las Ordenanzas.*

En atención a su cometido, y sin perjuicio de la salvedad a la que se hace referencia en el apartado siguiente, el planeamiento que se promueva en desarrollo del vigente Plan General de Ordenación Urbana deberá adecuar su contenido y sus propuestas a lo establecido en estas Ordenanzas sin que pueda modificarlas.

La salvedad a la que se ha hecho referencia en el anterior apartado está relacionada con los supuestos que pudieran considerarse como una adecuación y adaptación de las previsiones de estas Ordenanzas a las características y condiciones propias del ámbito de incidencia del citado planeamiento de desarrollo. En todo caso, tanto la necesidad de esa adaptación, como el contenido y alcance de la misma deberán ser objeto de la previa y preceptiva justificación, así como de la también previa y preceptiva valoración de su idoneidad por parte de los servicios técnicos municipales.

## Artículo 4. *Documentos de las Ordenanzas. Rango y vinculación normativa de los mismos y de sus determinaciones.*

Estas Ordenanzas contienen los siguientes documentos:

- Documento «1. Memoria».
- Documento «2. Ordenanzas».

En sentido estricto, tienen carácter normativo las determinaciones incluidas en el citado documento «2. Ordenanzas».

Por su parte, el documento «1. Memoria» y sus previsiones tienen carácter informativo, al tiempo que justificativo e interpretativo, de las propuestas incluidas en el documento «2. Ordenanzas».

Estas Ordenanzas y, en particular, las previsiones del documento «2. Ordenanzas» de las mismas, tienen el rango normativo establecido para ellas en la legislación urbanística vigente.

## Artículo 5. *Modificación de las Ordenanzas.*

Las modificaciones de estas Ordenanzas se adecuarán a los criterios establecidos en la legislación urbanística vigente.

En ese contexto, dichas modificaciones deberán fundamentarse en motivos de interés general y exigirán una descripción pormenorizada de su contenido y alcance, así como una justificación expresa de las mismas.

Todas las modificaciones guardarán relación con el motivo que las justifica, sin que puedan incluirse en el expediente alteraciones no relacionadas con dicho motivo, o que no se mencionen de forma expresa en las descripciones y justificaciones realizadas.

En consonancia con lo expuesto en el anterior apartado 3, la totalidad de las modificaciones planteadas deberán ser objeto de la correspondiente evaluación y justificación desde, entre otras, la perspectiva global de sus afecciones en el conjunto del término municipal, sin que procedan modificaciones puntuales que no se justifiquen en el contexto de ese ámbito territorial.

## BIGARREN TITULUA

URBANIZATZEKO ORDENANTZAK. ESPAZIO  
PUBLIKOEN URBANIZAZIOA*6. artikulua. Urbanizatzeko baldintza orokorrak.*

Udalerrian indarrean den hirigintza-plangintzan aurreikusitako urbanizazio-obra eta -jardunak antolatu eta gauzatzeko sustatzen diren proiektuek urbanizazio-elementuen eraikuntza-kalitatea eta zerbitzu maila arautzeko baldintzak, arloan indarrean diren legezko xedapenek definitutakoak, bete beharko dituzte, eta baita aipatu plangintza eta ordenantza hauek ere.

Ondorio horietarako, era horretako proiektuak joko dira 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 194. eta 195. artikuluetan aipatzen diren guztiak.

*7. artikulua. Urbanizazio-obra garatzen dituzten proiektuen arabera antolamendua egokitzeko aukeraren mugak.*

1. Aurreko artikuluan aipatutako urbanizazio-obren proiektuek espazio libre, komunikazio eta zerbitzu-azpiegiturarako zuzkidura-elementuak antolatzeko konfigurazioa, lerro-kadurak eta sestrak berregokitu ahal izango dituzte. Behar izanez gero, hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian, plangintzak zuzkidura horietarako ezarritako zonifikazio xehatua eragina izan dezakete, hurrengo 2. idatz zatian azalduko salbuespenekin.

Ildo horretan, espresuki ulertuko da plangintzak definitzen dituen zerbitzu-azpiegituren sareen trazadura eta ezaugarrien definizioak izaera adierazgarria duela. Hori dela-eta, horiek dagozkien urbanizazio-obren proiektuen bitartez zehaztuko dira behin betiko.

2. Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian, aurreko idatz-zatian aurreikusitako berregokitzeak ez ditu honakoak bere baitan hartuko:

— Lursail eraikigarrien zonifikazio xehatua.

— Indarrean dagoen legerian gai horretan araututako estandarra betetzearen ondorioetarako konputagarriak diren espazio libreen zonifikazio xehatua.

— Plangintzak aurreikusten ez dituen bide-sareko elementuak irekitzea.

— Plangintzak aurreikusten dituen bide-sareko elementuak ezabatzea.

3. Bide-komunikazioen sistema orokorrari zein tokikoari dagokionez, urbanizazio-obren proiektuek, kasu bakoitzean eraginpean hartutako esparrua urbanizatzeko tratamendu orokorra zehazteaz gain, dagokien bide-zerrendaren barruan kasu bakoitzean erabil daitezkeen mugikortasun-moduei (oinezko-ena, txirringailuena, ibilgailuena) zuzendutako berariazko espazioak eta espazio horietako bakoitzaren tratamendu berezia identifikatu ahal izango dituzte. Horrek ez du inongo aldaketarik ekarriko hirigintza-antolamenduan, horren zeregina bidez-zerrenda hori identifikatzera mugatzen baita oro har.

*8. artikulua. Ur-hornidurako sarea eta zerbitzua arautzeko baldintzak.*

## 1. Baldintza orokorrak.

Oro har, baldintza horiek arloan indarrean diren legezko xedapenetan ezarritakoak dira.

## TITULO SEGUNDO

ORDENANZAS DE URBANIZACIÓN. URBANIZACIÓN  
DE LOS ESPACIOS PÚBLICOS*Artículo 6. Condiciones generales de urbanización.*

Los proyectos que se promuevan para la ordenación y ejecución de las obras y actuaciones de urbanización previstas en el planeamiento urbanístico vigente en el municipio deberán cumplimentar las condiciones reguladoras de la calidad constructiva y del nivel de servicio de los elementos de urbanización definidas en el conjunto de las disposiciones legales vigentes en la materia, incluidos el citado planeamiento y estas Ordenanzas.

A esos efectos, se considerarán como tales proyectos la totalidad de los mencionados en los artículos 194 y 195 de la Ley de Suelo y Urbanismo de 30 de junio de 2006.

*Artículo 7. Límites de la posibilidad de adaptación de la ordenación por los proyectos que desarrollen obras de urbanización.*

1. Los proyectos de obras de urbanización mencionados en el artículo anterior podrán reajustar la configuración, alineaciones y rasantes de ordenación de los elementos dotacionales destinados a espacios libres, comunicaciones, e infraestructuras de servicios, afectando, si fuese necesario, en los suelos urbano y urbanizable, a la zonificación pormenorizada establecida por el planeamiento para dichas dotaciones, con las salvedades expuestas en el siguiente apartado 2.

En este sentido, se entenderá expresamente, que la definición de trazados y características de las redes de infraestructuras de servicios definidas en el planeamiento tienen carácter indicativo, por lo que la definitiva concreción de los mismos se producirá en todo caso a través de los correspondientes proyectos de obras de urbanización.

2. En los suelos urbano y urbanizable, los reajustes previstos en el apartado anterior no serán extensibles a:

— La zonificación pormenorizada de las parcelas edificables.

— La zonificación pormenorizada de los espacios libres computables a los efectos del cumplimiento del estándar regulado en esa materia en la legislación vigente.

— La apertura de elementos de vialidad no previstos por el planeamiento.

— La eliminación de elementos de vialidad previstos en el planeamiento.

3. En lo referente al sistema tanto general como local de comunicación viaria, los proyectos de obras de urbanización podrán, además de determinar el tratamiento general del ámbito afectado en cada caso en lo referente a su urbanización, identificar los espacios específicos destinados dentro de la correspondiente banda viaria a los distintos modos de movilidad (peatonal, ciclista, rodada) susceptibles de ser utilizados en cada caso, así como el tratamiento singular de cada uno de esos espacios, sin que eso conlleve alteración alguna de la ordenación urbanística, cuya labor queda circunscrita en términos generales a la identificación de la citada banda viaria.

*Artículo 8. Condiciones reguladoras de la red y del servicio de abastecimiento de agua.*

## 1. Condiciones generales.

Con carácter general, dichas condiciones son las establecidas en las disposiciones legales vigentes en la materia.

Gainera, aplikatzekoak izango dira artikuluko honen hurrengo idatz-zatietan azaldutako aurreikuspenak, aurreko xedapenetan arautu ez diren arloetan eragiten duten neurrian.

## 2. Kalkulu-zuzkidurak.

A. Bizitegi-eremuetan, kasu eta une bakoitzean egoki ikusten den zuzkidura eman dezaketen baldintzetan proiektatuko da sarea, indarrean den legeriari jarraituz.

B. Jarduera ekonomikoetarako (industriakoak eta hirugarren sektorekoak) eta ekipamenduzko zonetan, zuzkidura-emariaren berariazko azterketa bat egin beharko da.

C. Sare orokorra diseinatzerakoan, kontuan izango da suteetako ur-hartuneen eragina, hau da, gerta daitekeen edozein sutetatik hurbilen dauden bi ur-hartuneak martxan jarritz gero, horietako bakoitzak bi orduz gutxienez minutuko 1.000 litroko emaria izan beharko du 10 m-ko ur-zutabeko presioarekin.

## 3. Sarea lursailean ezartzea.

Ura hornitu eta banatzeko tutueria espaloien azpian eta estolderia sarearen mailatik gora kokatuko dira lehentasunez. Espaloien azpian gutxienez 0,80 m-ko estaldura izango dute eta, galtzada azpian, berriz, 1,00 m. Egokitzen jotzen den gutzietan, galtzada azpian pasabideak beste tutu baten barruan egingo dira, eta tutu hori hormigoiz indartuta egongo da, eta kutxetako paretetako pasabideak tutua pasatzeko zuloekin egingo dira. Kasu bakoitzean, Udalak egokitzen jotzen duenari jarraituko zaio, udal-zerbitzu teknikoek alde aurretik arazoak aztertu ondoren.

## 4. Ureztaketa-hartuneak eta suteetako ur-hartuneak.

A. Ureztaketa-hartuneak jarriko dira 50 metroko tartetan, eta Udalak homologatutako eredu araberakoak izango dira.

B. Halaber, suteetako ur-hartuneak jarriko dira, homologatutako eredu arabera, eta ibilgailu-sarbide egokia duten lekuetan kokatuko dira; horien artean, gehienez, 200 metroko tartek izango dira. 100 mm motakoak izango dira, izozteak eta eragin mekanikoak jasateko prestatuak, eta hiru irteerako zutabe bat izango dute amaieran, honako diametro hauekin: 100 mm-ko irteera bat eta 70 mm-ko bi irteera. 100 mm-ko diametro irteerak Storz modeloko errakorra izan beharko du eta, 70 mm-koek, berriz, Barcelona motako errakorra izango dute (UNE 23,400-80 arauaren arabera). Sare orokorrari konektatuko zaizkio ur-hartune bakoitzaren eroanbide bereizien bidez; gutxienez 100 mm-ko diametroa izango du eta konporta motako ixteko balbula izango dute.

C. Sute-arrisku handia duten industrietan gutxienez 2 orduko autonomia duen hornidura-andel propioa izango dute sute-kasuetarako, euren ezaugarri propioen arabera.

## 5. Sarearen bestelako elementuak.

A. Kutxetak hormigoizko armatuzkoak izango dira, burdinur-tuzko estalkiak dituztenak, bideetan indartu egingo dira eta dagokion zerbitzuaren inskripzio elebiduna eta Udaleko zerbitzuek ezarritako anagrama izango dituzte. Behar den kasuetan, polipropileno edo dentsitate handiko polietileno pate metalikoak izango dituzte.

B. Aldapan dauden ukondo eta tartetan euskarriak izango dituzte, eta 200 mm-tik gorako diametrotik gora dimensionatu egin beharko dira, lurraren bultzada pasiboa kontuan izan gabe.

Subsidiariamente, serán de aplicación las previsiones expuestas en los siguientes apartados de este mismo artículo, en la medida en que incidan en materias no reguladas en las disposiciones anteriores.

## 2. Dotaciones de cálculo.

